



Nola amets batetik

Amets Arzallus Antia

Ametsek ere koplak jarri dizkio bere buruari.
Goza dezagun puntutik puntura osatu duen sokaz!

Doinua: Ama begira zazu
Kopla txikia

- 1 **Nola amets batetik** beste bat **kantari** koplak jartzen hasi naiz neure **buruari**.
- 2 Koplak jartzen hasi naiz neure **buruari** askotan ezagutzen zailena den **hari**.
- 3 **Nola amets batetik** besterako **sokan** haurtzaroak alde egin zidan bi **pausotan**.
- 4 Haurtzaroak alde egin zidan bi **pausotan** Messiren kamiseta jantzirik **azokan**.
- 5 **Nola amets batetik** txori bat **kantari** bertsotan hasi nintzen entzunez **aitari**.
- 6 Bertsotan hasi nintzen entzunez **aitari** ta isiltzen zenean, neronen **baitari**.
- 7 **Nola amets batetik** keinuka **sorginak** nire egun guztiak ez dira **berdinak**.
- 8 Nire egun guztiak ez dira **berdinak** isilik daramatzat lotsak eta **minak**.

Puntuak lerro bakarrean idatzi ditu Ametsek. Bi lerrotan jarri beharko bagenitu, non ebakiko genuke esaldia? Marka dezagun, puntu bakoitzean, *etena*.